Joseba Arregik talde popularraren parte-hartzea kritikatu du. Izan ere, gogorarazi dio 2009an orain kritikatzen ari den proiektu horren inguruan ebazpen batzuk onetsi zituela. Ez zaio arrazoizkoa iruditzen talde popularra kexatzea 30 zuhaitz desagertuko direlako eta ez aitortzea jabari publiko-hidraulikoa 71.000 metrotik 227.000 metrora igaroko dela. Modu negatiboan baloratu du talde popularraren jarrera, ohikoa bihurtzen ari dena, hau da, udalerriko proiektu estrategikoak hasieran babestu egiten ditu eta gero babesa kentzen die. Bilduri adierazi dio ibaien inguruetan eraikitzeari dagokionez gaur egungo araudiek eskatzen dutela uholdegarritasun lerroen barruan ez eraikitzea.

Joseba Arregi critica la intervención del grupo popular ya que le recuerda que aprobó en el 2009 unas determinaciones respecto a este proyecto que ahora critica. No le parece razonable que el grupo popular se queje porque desaparezan 30 árboles y no reconozca que el dominio público-hidráulico pasa de 71.000 a 227.000 metros. Valora negativamente la postura del grupo popular, que se está haciendo habitual, de apoyar inicialmente los proyectos estratégicos del municipio y posteriormente retirar su apoyo. A Bildu le indica que en relación a la edificación en los entornos de los ríos las normativas actuales exigen no edificar dentro de las líneas de inundabilidad.

Luis Almansa harrituta agertu da talde popularraren jarrera ikusita, trazaduraren eta sekzioaren alde agertu baitzen eta orain gauzatze proiektua babesten ez dutelako, oinarrian 2009an onetsitakoa garatu baino egiten ez duen arren. Bere ustez, talde popularra udalerrirako funtsezkoa den obra batetik babesa kentzeko argudioak bilatzen ari da, talde politiko guztien eta auzokoen artean dagoen adostasuna hautsiz. Azpimarratu egin du talde popularrak beti berdin jokatzen duela, hasieran proiektuak babestuz, hala nola Getxo Antzokia, Romoko Kultura Etxea, Gobelako jarduna, eta gero iritzia aldatu eta babesa kentzen dutela.

Luis Almansa manifiesta su sorpresa por la postura del grupo popular ya que dio su conformidad al trazado y la sección y ahora niegan el apoyo al proyecto de ejecución que básicamente ha desarrollado lo aprobado en el 2009. Cree que el grupo popular está buscando argumentos para descolgarse del apoyo a una obra que es fundamental para el municipio rompiendo el consenso que existe entre todos los grupos políticos y los vecinos. Insiste en que el grupo popular actúa siempre de la misma manera apoyando inicialmente proyectos, como el Getxo Antzokia, la Casa de Cultura de Romo, la actuación en el Gobela, y luego

cambian de opinión retirando el apoyo.

Iñaki Gamerok berretsi du 2009ko urtarrileko osoko bilkuran ez zela gauzatze proiektua onetsi. Orain aurkezten ari da onesteko. Gogoan ditu gauzatze proiekturako egin zituzten alegazioak duela hilabete gutxi proiektu horren berri izan zutenean. Bere esanetan, talde popularrak zenbait ekimen aurkeztu ditu Eusko Legebiltzarrean eta Batzar Nagusietan Gobela ibaiaren problematika dela-eta. Izan ere, haiek lan egiten dute, eta ez demagogia. Berretsi egin du Errekaganeko lanen desjabetzea lehenago hasi zitekeela, eta horrela, egin berri dagoen parkea apurtu behar izatea saihestuko zen.

Iñaki Gamero se ratifica en que en el pleno de enero del año 2009 no se aprobó el proyecto de ejecución, ya que es el que ahora se está presentando para su aprobación. Recuerda las alegaciones que hicieron para la elaboración del proyecto de ejecución una vez que han conocido el mismo hace pocos meses. Indica también que el grupo popular ha presentado varias iniciativas en el Parlamento Vasco y a las Juntas Generales respecto a la problemática del río Gobela porque ellos se dedican a trabajar y no a hacer demagogia. Se ratifica en que se podía haber iniciado la expropiación de los trabajos de Errekagane previamente y ello hubiera evitado tener que romper un parque recién hecho.

Arregi jaunak talde popularraren parte-hartzea demagogikoa dela adierazi du. Izan ere, ondo dakitenez, ezin da desjabetze espedienterik hasi ukitutako lursailak zein diren zehatz jakin arte. Azpimarratu egin du 2009ko urtarrileko osoko bilkuran sekzioaren trazadura onetsi zela, baita Gobela ibaiaren ibilgua zein tartetan estalita egongo zen ere.

El sr. Arregi califica de demagógica la intervención del grupo popular, ya que como bien saben no se puede iniciar un expediente de expropiación sin saber exactamente qué terrenos son afectados. Insiste en que ya en el pleno de enero de 2009 se aprobó el trazado de la sección y también qué parte del río Gobela iría con cauce cubierto.

Iñaki Gamerok azpimarratu du talde popularra esparru instituzional desberdinetan jarduten aritu dela eta Fadurako zubirako 300.000 euroko kontsignazio ekonomikoa lortu duela. Kopuru hori beste proiektu proposamena gauzatuta aurreztuko litzatekeen kopuruari gehituta, gai horietan lan egiten jarraitzeko zenbateko garrantzitsua lortuko litzateke. Amaitzeko adierazi du proiektua gauzatzea ahalbidetuko dutela, baina kritikoak izango direla haien ustez hobetzekoak diren puntuetan. Hori dela eta, abstenitu

Iñaki Gamero insiste que el grupo popular ha estado actuando en diferentes ámbitos institucionales y ha conseguido también una consignación económica de 300.000 euros para el puente de Fadura que sumada a la cantidad que se ahorraría con ejecutar la otra propuesta de proyecto generaría un importe importante para seguir trabajando en estas cuestiones. Finaliza manifestando que van a posibilitar la ejecución del proyecto pero sin renunciar a ser críticos en aquello que estiman mejorable y por tanto se van a abstener.

egingo dira.

Proposamenaren inguruko bozketa egin da, eta emaitza hau lortu da: 16 boto alde: EAJ, Bildu, PSE-EE; eta 9 abstentzio, PP.

Sometida la propuesta a votación obtiene el sugiente resultado: 16 votos a favor: PNV, Bildu, PSE-EE y 9 abstenciones del PP.

Horrenbestez Uholdeen Inguruko Informazio Batzorde Bereziak proposatuta, ondorengo erabaki zen:

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa Especial de Inundaciones, se acordó:

LEHENENGOA: URA-Uraren Euskal Agentziaren eta Getxoko Udalaren arteko lankidetza-hitzarmenari hasierako onarpena ematea, *"Getxoko Gobela ibaian, uholdeetatik babesteko jarduketak; Getxoko (Bizkaia) Gobela ibaiaren egokitze hidraulikoaren eta ingurumen berreskurapenerako proiektua. Errekaganeko tartea"* proiektuan sartzen diren obrak gauzatzeko baldintzak arautzeko helburuarekin.

PRIMERO: Aprobar, con carácter inicial, el Convenio de colaboración a suscribir entre URA-Agencia Vasca del Agua y el Ayuntamiento de Getxo, al objeto de regular las condiciones para la ejecución de las obras comprendidas en el proyecto *"actuaciones para la protección de inundaciones en el río Gobela en Getxo; proyecto de acondicionamiento hidráulico y recuperación ambiental del río Gobela en Getxo (Bizkaia). tramo Errekagane"*.

Honako akordioa eta dagokion espedientea jendaurrean jarriko da nahitaez, HOGEI EGUNEAN zehar, alegazioak egin daitezen; horretarako, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuko da, Hitzarmenaren eduki osoarekin batera;

Someter este acuerdo, junto con su expediente, al preceptivo trámite de información pública, por plazo de VEINTE DÍAS, a efectos de alegaciones, mediante anuncio que será publicado en el Boletín Oficial de Bizkaia, con inserción del contenido integro del Convenio;

Alegaziorik aurkezten ez bada, behin betiko izaeraz onartutzat joko da Hitzarmena.

En el caso de no presentarse alegaciones, se entenderá definitivamente aprobado el Convenio.

BIGARRENA: URA-Uraren Euskal Agentziak bidalitako *"Getxoko Gobela ibaian, uholdeetatik babesteko jarduketak; Getxoko (Bizkaia) Gobela ibaiaren egokitze hidraulikoaren eta ingurumen berreskurapenerako proiektua. Errekaganeko tartea"* proiektua onartzea.

SEGUNDO: Aprobar el Proyecto de *"actuaciones para la protección de inundaciones en el río Gobela en Getxo; proyecto de acondicionamiento hidráulico y recuperación ambiental del río Gobela en Getxo (Bizkaia). tramo Errekagane"*, remitido por la Agencia Vasca del Agua, URA.

HIRUGARRENA: Akordio horiek gauzatzeko helburuarekin,

TERCERO: Facultar a la Alcaldía-Presidencia para realizar y dictar

beharrezkoak diren jarduketa eta ebazpenak egiteko eta xedatzeko ahalmena ematea Alkatetza-Lehendakaritzari.

cuantas actuaciones y resoluciones resulten precisas, en orden a la ejecución de estos acuerdos.

LAUGARRENA: Jarduketaren xede den esparruan ematen den eskumenen konkurrentzia dela eta, akordio horien berri ematea URA-Uraren Euskal Agentziari eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza Sailari, dagozkion ondoreetarako.

CUARTO: Notificar estos acuerdos a URA-Agencia Vasca del Agua, así como al Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco, a los efectos oportunos, dada la concurrencia competencial en el ámbito objeto de actuación.

**116.- HAUTESKUNDEETAKO MAHAIKIDEAK HAUTATZEKO 2012KO IRAILAREN 24AN EGINDAKO ZOZKETAKO EMAITZAK BERRESTEA.**

**116.- RATIFICACIÓN DEL SORTEO DE MIEMBROS DE MESAS ELECTORALES REALIZADO EL 24 DE SEPTIEMBRE DE 2012.**

Berrestea, Eusko Legebiltzarrerako hurrenengo hauteskundeetako mahaikideak hautatzekotan 2012ko irailaren 24an egindako zozketako emaitzak, espedienteak aldean dauzkan bezala.

Ratificar el sorteo de miembros de Mesas Electorales de las próximas elecciones al Parlamento Vasco, celebrado el día 24 de septiembre de 2012, cuyos resultados obran en el expediente.

**MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK**

**MOCIONES E INTERPELACIONES**

**111.- PP ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: UDALTZAINGOAREN BULEGOA AREETAKO AUZOAN ZABALTZEA.**

**111.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/LA APERTURA DE UNA OFICINA DE LA POLICÍA LOCAL EN LAS ARENAS.**

Jesús Toca jaunak ondorengo mozioa irakurtzen du:

Jesús Toca da lectura a la siguiente moción:

Areeta auzoko udal merkatuko eraikin zaharra hurren-hurrena abian jarriko denez, eta nola Bizkaiko Foru Aldundiarekin bat etorritako akordioaren esanetara Udalari beheko solairuaren eta lehenengo solairuaren erabilera lagatuko zitzaion, PP

Ante la inminente puesta en funcionamiento del antiguo edificio del mercado Municipal de Abastos del barrio de Las Arenas, y recordando que en el acuerdo con la Diputación Foral de Bizkaia establecía la cesión de la planta baja y de la planta primera para

alderdiko udal taldeak ustea dauka, herritarrei emendio on egingo litzaiokeela Udaltzaingoaren bulegoa herritarren zerbitzurako zabalduko eta abian jarriko balitz; horretara, Areeta eta Romo-Itzubaltzeta auzoek, batak bestearekin batean 30.000 baino gehiago bizilagun dituztela, azkenaren buruan Udaltzaingoaren bulegoa bere esku izango lukete.

uso del Ayuntamiento, el Grupo Municipal Popular considera que sería un buen servicio al ciudadano la puesta en funcionamiento de una oficina de atención al público de la Policía Municipal con el fin de que el barrio de Las Arenas y Romo, con más de 30.000 habitantes, cuente con una oficina de la Policía Municipal en el barrio.

Udaltzaingoa auzo horietako herritarrengana hurreratzeko on litzateke eta zeinahi izapide, dela salaketa, dela gorabeheraren bat, egiterakoan ez lukete beren auzoetatik urrun alde egin behar. Azkenerako, bulego horrek udaltzainentzat basearena egin lezake beren zerbitzua bertan egiten dutenerako.

Esto serviría para acercar la Policía Municipal al ciudadano del barrio, facilitando cualquier presentación de denuncia o cualquier incidencia sin que tenga que desplazarse de su entorno habitual, así mismo esta oficina actuaría de base para los agentes que presten su servicio en el barrio.

Hargatik bada, PP alderdiko udal taldeak Udalbatzarrari aurkezten dio osoko bilkuran baietsi dezan, hurrenengo ERABAKI PROPOSAMENA, hona :

Por lo que el Grupo Municipal Popular presenta para su aprobación en el pleno la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO:

LEHENENGOA.- Areeta auzoko udal merkatuko eraikin zaharreko beheko solairuan bulegoa paratu eta zabaltzea, Udaltzaingoaren komisaria albait arinen ezartzekotzat.

PRIMERA.-Que se habilite una oficina en la planta baja del antiguo edificio del mercado de abastos de Las Arenas para ubicar en él, una comisaría de la Policía Municipal en el menor tiempo posible.

BIGARRENA.- Mozio honen berri udal komunikabideetan ematea.

SEGUNDA.- Que se informe de la presente moción en los medios de comunicación municipales.

Azpimarratu egin du mozioaren bidez jendea artatzeko Udaltzaingoaren bulego bat sortzea eskatzen dela, auzokoen kudeaketak hobetzeko, horiek ez baitira Herritarren Arretarako Bulegoetan egiten. Horrez gain, Areeta inguruan, Romon, aritzen diren agenteentzat basea izango litzateke. Ez dute planteatzen ordutegi zehatzik ez zerbitzua noiz hasi, zerbitzua hobetzea

Insiste en que la moción pide crear una oficina de atención al público de la Policía Local para facilitar las gestiones de los vecinos, gestiones que no se realizan en las OACs y a su vez sirva de base de los agentes que actúan en la zona de Las Arenas, Romo. No plantean una determinación concreta de horarios ni de comienzo del servicio porque buscan una mejora del servicio

bilatzen baitute, arrazoizko kostuekin.

con costes asumibles.

Keltse Eigurenek, parte-hartzea hasteko, adierazi du Toca jaunak planteatutakoa eta mozioan jasotakoa bi gauza direla. Izan ere, mozioan polizia-etxe bat planteatzen da, eta parte-hartzean auzokoak artatzeko bulego bati buruz hitz egin du. Adierazi du gobernu-taldeak ez duela aurreikusita zerbitzu hori deszentralizatzea, neurri horrek polizia-eginkizunerako beharrezko baldintza teknikoak dituen eraikin bat izatea eskatuko bailuke. Era berean adierazi du talde popularrak okupatu nahi duen eraikinak xede zehatza duela, eta ez dela poliziari lotutakoa, talde batek ere une batean ere ez baitu xede hori aipatu. Bere esanetan, talde popularrak planteatzen dituen instalazio berrietan Herritarren Segurtasunean dauden agenteak jarri beharko lirateke edo plantilla handitu beharko litzateke, eta gai hori ez da sartzen osoko bilkurak Enplegu Planari lotuta onetsi zuen plantillaren neurriaren barruan. Era berean adierazi du Getxon segurtasun gaiak Udaltzaingoak eta Ertzaintzak artatzen dituztela eta gaur egungo polizia-etxearekin auzokoei zerbitzu egokia ematen zaiela. Amaitzeko adierazi du deszentralizazioari buruz hitz egin behar bada, plan orokorragoan pentsatu beharko litzatekeela, udalerri osoa barruan hartzeko. Gogoan izan du gaur egungo polizia-etxean esparru desberdinetan espezializatutako langileak daudela eta auzokoen kudeaketak errazten dituztela.

Keltse Eiguren inicia su intervención manifestando que lo que ha planteado el sr. Toca y lo que se recoge en la moción son dos cuestiones diferentes ya que en la moción se plantea una comisaría y en la intervención habla de una oficina de atención a los vecinos. Indica que el equipo de gobierno no tiene previsto descentralizar este servicio ya que la descentralización requeriría contar con un edificio que reúna las condiciones técnicas necesarias para la específica función policial. Asimismo, indica que el edificio que plantea ocupar el grupo popular tiene un destino concreto y que no es el de policía ya que en ningún momento se ha planteado por ningún grupo ese destino. Manifiesta que las nuevas instalaciones que plantea el grupo popular requerirían personal que habría que detraer de los efectivos que están en Seguridad Ciudadana o aumentar la plantilla, cuestión que no encajaría dentro del dimensionamiento de plantilla que aprobó el pleno con motivo del Plan de Empleo. Manifiesta, asimismo, que en Getxo las cuestiones de seguridad son atendidas tanto por la Policía Local como por la Ertzaintza y con la comisaría actual se presta un servicio adecuado a los vecinos. Finaliza indicando que si hay que hablar de descentralización habría que pensar en un plan más global que abarcara a la totalidad del municipio, recordando que en la comisaría actual existe personal especializado en diferentes ámbitos que facilita las gesiones de los vecinos.

Maitane Nerekanen esanetan, Bildu ez dago ados gaur egungo egoeran Areetan polizia-etxe berria sortzearekin, zerbitzua bikoiztea

Maitane Nerekan indica que Bildu no está de acuerdo con la creación de una nueva comisaría en Las Arenas en la situación actual porque supondría

ekarriko bailuke. Baina egokia iruditzen zaie oinarriko ideia, deszentralizazioarena. Baina ideia horrek mozioan planteatutako lana baino sakonagoa eskatzen du.

Luis Almansaren esanetan, talde sozialistak bai kritikoa emango du. Izan ere, hauteskunde-programan auzoko polizia-etxea planteatzen zuten Areetarako eta Romorako, eta Geltoki plazan eraikiko den zerbitzu publikoen eraikin batean ikusten dute, eta ez talde popularrak proposatzen duen eraikinean, azken hori jarduera ekonomikoetara bideratuta baitago.

Jesús Tocak nabarmendu du aurkeztutako mozioak, polizia-etxeari buruz hitz egin arren, benetan lortu nahi duena auzokoak artatzeko bulegoa dela, eta horrek eraikinaren beharrizan teknikoak eta langileen eskakizunak sinplifikatzen dituela. Areeta-Romoko planteamenduari dagokionez, deszentralizazio prozesu bat abiatzeagatik da. Bere esanetan, gaur egun Udaltzaingoaren zein Ertzaintzaren polizia-etxeak Algorta auzoan kokatuta daude, eta leku horietara iristea ez da erraza. Gogorarazi du Udaltzaingoaren 2011ko Memoriaren arabera, Udaltzaingoak auzokoen kexen eta iradokizunen heren bat jasotzen du, eta memoria berean erronka moduan planteatzen da erantzun denborak murriztea. Era berean gogorarazi du Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltzak bere txostenean jaso duela polizian aurkeztutako salaketek gora egin dutela nabarmen 2011n, eta horrek gomendatzen duela zerbitzu hori herritarrei hurbildu behar zaiela. Amaitzeko adierazi du polizia asko bigarren jardueraren egoeran daudela eta zerbitzu horiek eman ditzaketela

duplicar un servicio aunque sí les parece correcta la idea de subyace de descentralización pero esta idea requiere un trabajo más profundo que el que se plantea en la moción.

Luis Almansa manifiesta que el grupo socialista va a dar un si crítico ya que en su programa electoral planteaban una comisaría de barrio para Las Arenas y Romo y la ven, en un futuro edificio de servicios públicos a construir en la plaza de La Estación y no en el edificio que propone el grupo popular ya que ese está destinado a actividades económicas.

Jesús Toca insiste en que la moción presentada, aunque hable de comisaría, lo que realmente busca es una oficina de atención a los vecinos, lo que simplifica las necesidades técnicas del edificio y los requerimiento de personal. En relación al planteamiento de Las Arenas-Romo es por iniciar un proceso de descentralización. Indica que actualmente tanto la comisaría de la Policía Local como de la Ertzaintza están ubicadas en el barrio de Algorta y en una zona de no facil accesibilidad. Recuerda que, según la Memoria del año 2011 de la Policía Local, ésta es la destinataria de un tercio de los avisos, quejas y sugerencias de los vecinos y en la misma memoria se plantea como reto reducir los tiempos de respuesta. Asimismo, recuerda que la Fiscalía del País Vasco recoge en su informe que las denuncias presentadas ante la policía se han incrementado de manera importante en el año 2011 lo que aconseja acercar este servicio a los ciudadanos. Finaliza indicando que existen muchos policías en situación de segunda actividad que podrían prestar esos servicios en los horarios que se determinen.

zehazten diren ordutegietan.

Keltse Eigurenek erantzun du poliziaren erantzuteko denbora ez dela hobetuko azpiegitura berriak zerbitzu garrantzitsuak ez baditu. Berretsi egin du Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren gaur egungo egoitzak irisgarriak direla. Gainera, proposamena berandu dator planteatzen duten eraikinari dagokionez, jarduera ekonomikoei lotuta baitago eta irekitzeko puntuan. Bere ustez, polizia zerbitzuak ondo funtzionatzen du, baina hobetu daiteke, baina horrek ez du eskatzen moziora bildutako proposamenak hartzea.

Keltse Eiguren replica que el tiempo de respuesta de la policía no va a mejorar si la nueva infraestructura no tiene unos servicios importantes. Se ratifica en que la sede actual la Policía Local y la Ertzaintza son accesibles y la propuesta llega tarde respecto al edificio que plantean que está a punto ya de abrirse para su destino que está vinculado a actividades económicas. Opina que el servicio de policía funciona bien, aunque puede mejorar, pero que ello no exige adoptar las propuestas que se recogen en la moción.

Mozioaren inguruko bozketa egin ondoren, baztertu egin da: 11 boto alde, PP, PSE-EE; eta 14 boto aurka: EAJ eta Bildu.

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 11 votos a favor, PP, PSE-EE y 14 votos en contra de PNV y Bildu.

**112.- BILDU-GETXOKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: PUBLIZITATE INBERTSIORAKO IRIZPIDEAK.**

**112.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL BILDU S/ CRITERIOS PARA LA INVERSIÓN DE PUBLICIDAD.**

Arantza Gutiérrezek mozioa irakurri du. Publizitatea esleitzeko irizpideak, erabilitako komunikabideak eta hizkuntza-irizpideak berriz planteatzea proposatu dute. Gaia Kultur Etxeko zuzendaritza batzordean eztabaidatzeko borondatea agertu du, akordioak lortze aldera.

Arantza Gutiérrez da lectura a la moción, que propone el replanteamiento de los criterios sobre la adjudicación de la publicidad así como los medios utilizados y los criterios lingüísticos. Muestra su voluntad de debatir el tema en la junta rectora del Aula de Cultura para intentar llegar a acuerdos.

Koldo Iturbek esan du gai hau Kultur Etxeko zuzendaritza-batzordean eztabaidatu zela eta, beraz, gobernu-taldearen jarrera ezaguna dela eta ez dela aldatu. Azaldu du irizpideak daudela, baina litekeena dela Bilduren gustukoak ez izatea. Irizpide horietan, publizitatearen eraginkortasuna, prezioa, hizkuntza, komunikabideak,

Koldo Iturbe manifiesta que la cuestión ya fue objeto de debate en la Junta Rectora del Aula de Cultura y por tanto la postura del equipo de gobierno es conocida y no ha variado. Explica que existen criterios aunque pueda que no sean del gusto de Bildu y que los criterios conjugan cuestiones como la efectividad de la publicidad, el precio,

etab. hartzen direla kontuan. Idatzizko komunikabideak zein irratiak erabiltzen dira, eta ekitaldiaren edukia kontuan hartzen da jarduera mota eta erabilitako komunikabidea zehazteko, baita entzuleen profila eta komunikabide bakoitzaren audientziak eta irakurleak ere. Telebistako publizitateari dagokionez, tokiko telebistekin soilik lan egiten da. Amaitzeko adierazi du erabakiak Etxeko profesionalek planteatutako irizpide teknikoen arabera hartzen direla, legeria aplikagarria errespetatuz. Hori dela eta, proposamenaren aurka bozkatuko dute.

la lengua, los medios, etc. Se utilizan tanto medios escritos como radios y se tiene en consideración el contenido del acto para determinar que tipo de actividad y en que medio se realiza, así como el perfil de los oyentes y también las audiencias y lectores de cada medio. En relación a la publicidad en televisión sólo se trabaja con televisiones locales. Finaliza manifestando que las decisiones se adoptan bajo criterios técnicos planteados por los profesionales del aula y respetando la legislación aplicable y que por todo lo expuesto se van a oponer a la propuesta.

Eduardo Andradek adierazi du talde popularrari ez zaiola gaizki iruditzen publizitatean egindako inbertsio irizpideei buruz gogoeta egitea, betiere, gogoeta hori irekia eta ez-baztertzailea bada. Era berean, egokia iruditzen zaio hizkuntza-irizpidea kontuan hartzea, ez bakarrik berezko hizkuntzena, baita atzerriko hizkuntzena ere, hala nola ingelesa, etab. Bere ustez, gogoeta informazioan eta komunikazioan egindako gastu guztiaren ingurukoa izan behar da, 2011n turismora bideratutako gastuaren erdia baino gehiago izan baitzen, jarduera ekonomikora, merkataritzara, sustapenera, eta abarrera bideratutako gastuaren batura baino gehiago. Bere ustez, publizitatean irizpideak adostu egin behar dira, are gehiago gobernu-taldea gutxiengoa denean, eta irizpideak talde politiko guztiak biltzen dituen zuzendaritza-batzordeak onetsi behar ditu. Hori dela eta, mozioaren hirugarren puntuan paragrafo hau gehitzea planteatzen dute:
"Irizpideak Getxoko Kultur Etxeko Zuzendaritza Batzordeak onetsi beharko ditu".

Eduardo Andrade manifiesta que al grupo popular no le parece mal reflexionar sobre los criterios de inversión en publicidad pero siempre y cuando se trate de una reflexión abierta y no excluyente. También le parece correcto tener en cuenta el criterio lingüístico no sólo de las lenguas propias sino también de las lenguas extranjeras como el inglés, etc. Opina que la reflexión debe afectar a todo el gasto en información y comunicación que en el año 2011 supuso más que el doble del gasto destinado al turismo o más que la suma del gasto destinado a actividad económica, comercio, promoción, etc. Opina que los criterios en publicidad deben consencuarse y más cuando el equipo de gobierno está en minoría y que los criterios deben de ser aprobados por la junta rectora en la que están presentes todos los grupos políticos, por lo que plantean que al punto tercero de la moción se le añada el siguiente párrafo:

"Los criterios deberán ser aprobados por la Junta Rectora del Aula de Cultura".

Arantza Gutiérrezek, Bilduren izenean, paragrafo hori gehitzea onartu du.

Arantza Gutiérrez, en nombre de Bildu, acepta la adición.

Luis Almansak adierazi du talde sozialista mozioaren aurka agertuko dela ez datorrelako errealitatearekin bat. Mozioa onartuko balitz eta alkateak betearazteko asmoa izango balu, ezinezkoa izango litzaioke, legeak eskatzen baitu publizitatea zabalkunde handienea duten komunikabideetan banatzea. Horrez gain adierazi du Getxoko Udalak euskaraz argitaratzen diren tokiko aldizkariei diru-laguntza ematen diela euskarari buruzko kapituluaren barruan, bost milioi guztira udal aurrekontuaren barruan. Talde popularraren jarrerari dagokionez, bere ustez osoko bilkura debaluatzen du, osoko bilkurak hartu behar baititu erabakiak, eta ez erakunde autonomo baten Zuzendaritza Batzordeak.

Luis Almansa manifiesta que el grupo socialista se va a oponer a la moción porque no se ajusta a la realidad y que en el supuesto de aprobarse y si el alcalde fuera a ejecutarla se vería imposibilitado ya que la legalidad exige que la publicidad se distribuya en los medios de mayor difusión. Indica además que el Ayuntamiento de Getxo ya subvenciona a revistas locales editadas en euskera dentro del capítulo de euskera que ascienden a un total de cinco millones en el presupuesto municipal. En relación a la posición del grupo popular estima que ésta devalúa al pleno ya que éste el que debería tomar las decisiones y no la Junta Rectora de un organismo autónomo.

Arantza Gutiérrezek aitortu du zabalkunde handiena duten komunikabideetan argitaratzeko lege-eskakizuna dagoela, eta adierazi du euskaraz komunikabide bakarra dagoela. Gogorarazi du jende askok tokiko argitalpenak irakurtzen dituela, euskaraz zein gaztelaniaz. Berretsi egin du mozioa harago doala eta gogoeta ireki eta sakonagoa planteatzen du, haien ustez gastatzen dena hobetzeko modukoa baita inbertsioaren efizientziaren ikuspuntutik.

Arantza Gutiérrez reconoce la exigencia legal de publicar en los medios de mayor difusión e indica que en euskera únicamente existe un medio y recuerda que mucha gente lee publicaciones locales tanto en euskera como en castellano. Se ratifica en que la moción va más allá y plantea una reflexión abierta y más profunda ya que creen que lo que se gasta es mejorable desde un punto de vista de eficiencia de la inversión.

Koldo Iturbek adierazi du Bilduk badakiela irizpideak daudela eta aitortu egiten du irizpide teknikoak eta profesionalak direla, eta Bilduri galdetzen dio ea irizpide politikoak ezarri nahi dituen. Amaitzeko, Almansa jaunari adierazi dio euskarako aurrekontuaren zenbatekoa ez dela berak esandakoa, askoz txikiagoa baino.

Koldo Iturbe indica que Bildu reconoce la existencia de criterios y reconoce que son criterios técnicos y profesionales y pregunta a Bildu si lo que quiere es implantar criterios políticos. Finaliza indicando al sr. Almansa que el presupuesto de euskera no es de la cuantía que ha manifestado sino bastante menor.

Andrade jaunak adierazi du gustatuko

El sr. Andrade interviene para indicar

litzaiokeela aplikatzen diren irizpideak ezagutzea, eta irizpideak zuzendaritza batzordeko presidenteak onetsi baditu, azken hori politikaria denez, eduki politikoa daukatela. Talde sozialistari gogorarazi dio mozioa Kultur Etxeari buruzkoa dela eta publizitatea txertatzeko lege aurreikuspenak zenbait espedienteren ingurukoak direla, oro har, hirigintza izaerakoak, baina ez dutela publizitate osoa ukitzen. Udalak euskaran gastatzen duen zenbatekoari dagokionez, hori talde sozialistaren erantzukizuna da, kreditu horiek biltzen dituen aurrekontua onetsi baitzuen.

que quisiera conocer los criterios que se aplican y que esos criterios si los ha aprobado el presidente de la junta rectora, éste es un político, también tienen contenido político. Recuerda al grupo socialista que la moción se refiere al Aula de Cultura y que las previsiones legales para la inserción de publicidad se refieren a determinados expedientes básicamente de índole urbanístico pero no afecta a toda la publicidad. En relación a la cuantía que el ayuntamiento se gasta en euskera ésta es responsabilidad del grupo socialista que aprobó el presupuesto donde se incorporan esos créditos.

Luis Almansak talde popularrari adierazi dio duela hiru urtetik ezaren alderdia bihurtu direla eta Alderdi Sozialista adostasunen eta akordioen alde dagoela, horrelakorik gabe Udalak ezin baitu aurrera egin. Ildo horretatik, gehiengoa osatu dezaketen taldeei eskatu die udal aurrekontuak onesteko lan egin dezatela.

Luis Almansa indica al grupo popular que desde hace años se han convertido en el partido del no y el Partido Socialista está a favor de consensos y acuerdos sin los cuales el ayuntamiento no puede avanzar y en ese sentido pide a los grupos que pueden sumar mayoría que trabajen para aprobar unos presupuestos municipales.

Koldo Iturbek erantzun du erakunde autonomoetako presidenteek erakunde horietako teknikariek esandakoaren arabera jarduten dutela, eta bere ustez teknikari horiek maila handiko profesionalak direla, eta indarreko araudia errespetatzen dutela. Amaitzeko adierazi du bitxia iruditzen zaiola euskararen inguruan irizpide oso desberdinak dituzten Bildu eta talde popularra proposamen honetan ados egotea.

Koldo Iturbe replica que los presidentes de los organismos autónomos actúan conforme a lo que les manifiestan los técnicos de dichos organismos a los que considera profesionales de gran nivel y siempre con repeto a la normativa vigente. Finaliza manifestando que le parece curioso que Bildu y el grupo popular que tienen criterios tan distintos respecto al euskera se pongan de acuerdo en esta propuesta.

Arantza Gutiérrezek adierazi du Bilduk teknikari guztien lana errespetatzen duela, eta horien lana ez duela zalantzan jartzen. Hala ere, bere ustez, irizpide batzuk hobetzeko modukoak dira eta gaur egungo egoerara egokitu behar dira. Hori dela eta, gogoeta hau planteatzen dute.

Arantza Gutiérrez manifiesta el respeto de Bildu por el trabajo de todos los técnicos/as, cuyo trabajo no pone en duda, pero opina que hay criterios mejorables y que deben de adaparse a la situación actual por lo que plantean esta reflexión.

Eduardo Andradek adierazi du talde popularrak ez duela zalantzan jartzen ez legeria betetzea ez teknikarien profesionaltasuna. Baina irizpide horiek badaude, aurkeztu egin behar dira, osoko bilkurak onesteko. Luis Almansari adierazi dio aurreko legegintzaldian EAJ botatzeko aurkeztu zela eta legegintzaldiaren amaieran EAJ babestu zuela, eta horren eraginez duela gaur egungo ordezkaritza politikoa.

Eduardo Andrade indica que el grupo popular no pone en duda el cumplimiento de la legalidad ni la profesionalidad de los técnicos pero opina que si existen esos criterios deben de presentarse para ser aprobados por el pleno. A Luis Almansa le indica que se presentó en la legislatura anterior para desbancar el PNV y finalizó la misma apoyándolo y esto le ha llevado a la representación política que actualmente tiene.

Mozioaren inguruko bozketa egin ondoren, emaitza hau lortu da: 13 boto alde, PP, Bildu; eta 12 boto aurka, EAJ, PSE-EE.

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 13 votos a favor, PP, Bildu y 12 votos en contra, PNV, PSE-EE.

Horrenbestez, mozio hau onetsi da.

En consecuencia es aprobada la siguiente moción:

Gure udalak garrantzi handia ematen dio herrian zein herritik kanpo proiektatzen duen irudiari. Inbertsio handiak egiten ditu antolatzen duen ekimen ororen zabalpenean zein Udalaren irudiaren lanketan, jaialdi zein kultur ekimen handien kasuan batez ere.

Nuestro ayuntamiento da gran importancia a la imagen que proyecta bien en el propio pueblo como fuera de él. Realiza grandes inversiones en la difusión de toda iniciativa que organiza así como en el tratamiento de su propia imagen, sobre todo en los grandes festivales y actos culturales.

Horren adibide argia da Getxoko Kultur Etxea Organo Automoa. Bertan egiten da publizitate inbertsiorik handiena eta udalak komunikatiboki duen politikaren adibide esanguratasua da.

Claro ejemplo de esto, es el Organo Autónomo de la Kultur Etxea. En este se realiza la mayor inversión de publicidad y esto es una muestra muy significativa de la política comunicativa del ayuntamiento.

2011ko aurrekontuan (eta beraz, 2012koan, aurrekontu luzatuak baititugu 411.000 euroko diru partida ezarri zen Kultur Etxean, IIPublizitatea" izendapenarekin. Honi gehitu behar zaizkio Udal Euskaltegia (Kultur Etxearekin batera kudeatzen dena) publizitaterako duen 5.142 euroko partida. Guztira 416.142 euro, Getxon Kultur Etxeak aurrera eramaten dituen

En los presupuestos del 2011 ( por tanto en los del 2012, pues los del 2011 han sido prorrogados) a la Kultur Etxea se le adjudicaron 411.000 euros con la denominación de "Publicidad". A esto hay que añadirle la partida que le corresponde al Euskaltegi Municipal de 5.142 euros para publicidad (la cual se gestiona a la vez que la de la Kultur Etxea). En total 416.142 euros para la

ekimenen zabalkunderako. Kultur Etxearen aurrekontuaren %6a gutxi gora behera.

difusión de las actividades llevadas a cabo por la Kultur Etxea de Getxo. Más o menos un 6% del presupuesto total.

Beste ekimen askoren artean, komunikabideetan jartzen den publizitateak eramaten du udalak zabalkundera ezarritako diru partiden zatirik handiena. Irrati, telebista eta idatzizko komunikabideekin hainbat hitzarmen ditu Kultur Etxeak. Besteak beste, 2012an 16.284 euro eman dizkio COPE-Radio Popular taldeari, 7.500 Tele7 telebista kateari, 4.956 UK aldizkariari; El Correo egunkariarekin exkusibidade hitzarmenak ditu zenbait jaialdi handi iragartzeko.

La publicidad en los medios de comunicación, se lleva la mayor parte de la partida de dinero establecido para la difusión de las diversas actividades. La Kultur Etxea cuenta con ciertos convenios con radios, televisiones y medios escritos. Tal es así, que en el 2012 se le han otorgado 16.284 euros a Radio Popular COPE, 7500 euros a la cadena de televisión Tele7 y 4.956 a la revista UK, entre otros; con el periódico El Correo y DEIA, tiene convenios exclusivos para el anuncio de algunos grandes festejos.

Kultur Etxeak ez du irizpide idatzirik publizitate gastu horiek erabakitzeko. Komunikazio talde handi erdaldunek era maten dituzte diru partida garrantzitsuak horiekin sinatzen diren hitzarmenen bitartez, tokikotasun, hizkuntza edo bestelako irizpideak kontuan hartu barik. Argi dago, herrian antolatzen diren kultur ekimenen zabalkunde ahalik eta handiena bilatzen duela Kultur Etxeak, baina horrek ez du justifikatzen milaka eta milaka euro suposatzen duten publizitate kontratuak sinatzea edozein enpresa pribaturekin. Getxoko Kultur Etxearen eskaintza aztertzen ari den honetan, garrantzitsua uste dugu ekimenen zabalkundearen inguruan sakontzea eta publizitatea inbertsioen inguruko irizpideak zehaztea.

La Kultur Etxea no tiene criterios para decidir estos gastos de publicidad. Mediante los convenios que se firman, son las grandes empresas de comunicación de habla castellana las que se llevan importantes partidas de dinero, sin tener en cuenta criterios que favorezcan a los medios locales, criterios lingüísticos... Es evidente que la Kultur Etxea pretende que la difusión de las actividades culturares sea la mayor posible, pero eso no justifica el firmar contratos publicitarios con cualquier empresa privada que suponga miles y miles de euros. Por ello, vemos conveniente que en el estudio que se está realizando a la oferta sobre la Kultur Etxea, que se profundice en la difusión de las actividades y que se concreten los criterios de inversión de la publicidad.

Horregatik, ondokoa eskatzen diogu Osoko Bilkura honi betearazi dezan:

Por todo ello el grupo municipal de Bildu eleva a este pleno, para su debate y aprobación la siguiente propuesta de acuerdo:

1. Tokiko komunikabideetan egiten den

1. Dar prioridad y poner en valor a los

publizitate inbertsioari lehentasuna ematea, horiek balorean jarriz.

medios de comunicación del municipio.

2. Hizkuntza irizpideak zehaztea publizitate inbertsioak egiterako orduan.

2. Concretar criterios lingüísticos a la hora de realizar la inversión en publicidad.

3. Orokorrean, irizpideak zehaztea publizitate hitzarmenak eta udal ekimenen zabalkunderako egindako beste ekintzak diseinatzerako orduan, hartzaile potentzialen perfilean sakonduz eta horiek mugitzen diren guneetara zuzenago helduz.

3. En general, concretar los criterios para la inversión publicitaria y para el diseño de la difusión de otras actividades, profundizando en el perfil de los/as receptores/as potenciales y dirigiéndose directamente a los lugares en donde se mueven dentro del municipio.

**113.- BILDU-GETXOKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: GETXOKO UDALAK IRAILAREN 26KO GREBARAKO ARRAZOIAK BABESTEN DITU.**

**113.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL BILDU S/ APOYO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO A LAS RAZONES DE LA HUELGA DEL 26 DE SEPTIEMBRE.**

Maitane Nerekan andreak ondorengo mozioa irakurtzen du.

Maitane Nerekan da lectura a la siguiente moción:

Duela sei hilabete Osoko Bilkura honetara etorri ginen Martxoaren 29an zenbait sindikatuk eta eragile sozialek antolaturiko greba orokorraren deialdiarekin bat egin zezan Osoko Bilkura honek. Ez genuen aldeko erantzunik jaso.

Hace ya seis meses, pedimos a este Pleno que se uniese a la huelga general convocada y organizada por algunos de los sindicatos y agentes sociales para el día 29 de Marzo. No recibimos ninguna respuesta a favor.

Urte erdi ondoren, egoerak hobetu beharrean, okerrera egin du: zerbitzu sozialetan eragin zuzena duten murrizketek, BEZaren igoerak, dendari eta merkatari txikien gaineko presio fiskalaren handitzeak eta PPren gobernuak hartutako beste neurri batzuek eragin zuzena dute eta izango dute gure eguneroko jardunean, tamalez, kalterako.

Medio año más tarde, la situación, en vez de mejorar ha empeorado: los recortes que afectan directamente a los servicios sociales, la subida del IV A, el aumento de la presión fiscal a los pequeños comercios y otras tantas medidas tomadas por el gobierno del PP, afectan y afectarán directamente a nuestras actividades cotidianas causándonos, por desgracia, grandes daños.

Dagoeneko, Getxon dagoen langabetuen kopurua 4.504 da ,hau da

Por el momento, el número de desempleados de Getxo es de 4.504, es

%5,6 getxoztarrei ukatzen zaie lan egiteko eskubidea, eta horrekin batera, bizitza normalizatu bat izateko aukera. 2011ean 161 establezimenduk beren ateak itxi zituzten. Eta, Madrilgo Gobemuak indarrean jarritako neurriek egoera okertuko duela aurreikusten dute adituek eta eragile sozialek. Bitartean, krisi-egoera honetara eraman gaituzten bankuek trukean sariak baino ez dituzte jasotzen.

decir, al 5,6% de los getxoztarras se les niega el derecho a trabajar y con ello, la oportunidad de tener una vida normalizada. En 2011, 161 establecimientos cerraron sus puertas. Además, los expertos y agentes sociales prevén que las medidas adoptadas por el Gobierno de Madrid empeoren la situación. Mientras tanto, las entidades bancarias que nos han llevado a esta situación no hacen más que recibir recompensas.

Horren aurrean, Udalak, herritarrengandik hurbilen dagoen erakundeak, langile, dendari, ostalari eta, bereziki, prekarietate- edo bazterketa-egoeran daudenen eskubideen aldeko bozgorailu izan beharko luke. Hori dela eta, herri honetako gehiengo sindikalak eta eragile sozial askok irailaren 26ra deitu duten grebari babesa emateko beharra ikusten dugu.

Ante esto, el ayuntamiento como entidad más cercana a los ciudadanos, trabajadores, comerciantes, hosteleros y especialmente a aquellos que se encuentran en una situación de precariedad y exclusión, debería ser el altavoz que vele por sus derechos. Por ello, la mayoría sindical y agentes sociales del municipio, vemos la necesidad de apoyar la huelga convocada para el día 26 de octubre.

Horregatik Bildu Getxo Udal Taldetik ondoko konpromisoa hartzeko eskaera egiten diogu Getxoko Osoko Bilkurari:

Por todo ello el grupo municipal de Bildu eleva a este pleno, para su debate y aprobación la siguiente propuesta de acuerdo:

1. lrailaren 26an, ez da inolako jarduera politiko-instituzionalik garatuko eta egun horretan zitatuak dauden gainerako udaleko bilera guztiak atzeratuko dira.

l. El día 26 de septiembre, no se realizará actividad política institucional alguna y se suspenderán las sesiones convocadas para el mismo, dándose explicación de las razones a la ciudadanía.

2. Era berean, Udal gaiei loturiko prentsaurreko edo agerraldirik ez da egingo; nahiz eta grebarekin lotutako adierazpenak, egoki ikusten diren heinean, egiteko aukera izango den.

2. Igualmente, se suspenderán las ruedas de prensa y comparecencias vinculadas a temas municipales; pero, será optativa la realización de manifestaciones relativas a la huelga, si se considera oportuno

3. Osoko Bilkura honek dei egiten die getxoztarrei inposaturiko murrizketen aurrean haien protesta adieraz dezaten, irailaren 26an Greba Orokorraren harira antolatzen diren mobilizazioetan aktiboki parte hartuz.

3. Este Pleno llama a los getxoztarras para que se expresen contra los recortes impuestos, participando de forma activa en las movilizaciones organizadas al hilo de la Huelga General del 26 de septiembre.

4. Erabaki honen berri, herritarrei emango zaie datozen egunotan Bandoen bidez edo ohiko komunikabideen bidez.

4. Se dará publicidad a la resolución en días sucesivos mediante bando o medios de comunicación.

Maitane Nerekan andreak, halaber, adierazten du, aurreko greba orokorrari buruzko mozioan, PNV-k esan zuela erakundeek ezin zutela grebara bultzatu eta ildo horretatik bertatik jarraitu zuela talde sozialistak ere; baina martxoaz geroztik egoera okertu egin dela azpimarratzen du eta horrek are gehiago justifikatzen duela grebari eta mozioari babesa ematea. Greba egoera konpontzeko soluzio magikoa ez dela aitortzen du, baina hartzen ari diren neurrien aurrean gizarteak bere gaitzespena adierazteko formularik onena dela dio.

Maitane Nerekan indica, asimismo, que en una moción referente a la anterior huelga general el PNV planteó que las instituciones no podían incitar a la huelga y en este sentido también se pronunció el grupo socialista pero recalca que desde marzo la situación ha empeorado y ello justifica aún más el apoyo a la huelga y a la moción. Reconoce que la huelga no es una fórmula mágica para resolver la situación pero es la mejor fórmula para demostrar el rechazo social a las medidas que se están adoptando.

Luis Almansa jaunak adierazten du talde sozialistak grebarako eskubidea errespetatzen duela, baina ez du uste konponbidea Autonomia Erkidegoan dauden parte hartzeko foroetan parte hartzeari uko egiten dioten eta sindikatuen zatiketa eragiten duten zentral nazionalistek egiten duten antzera sei hilean behin greba egitea denik. Ez zaio logikoa iruditzen orain Euskadin soilik greba planteatzea gobernu sozialista bat dagoenean eta horrek dirauen bitartean osasun- eta hezkuntza-arloetan nahiz Gizarte Zerbitzuetan ez dela murrizketarik egingo bermatuta dagoenean. Aitortzen du PPren gobernua azken aldian ezagutu den eskubide-murrizketarik handienak egiten ari dela, mesede enpresariei soilik egiten dien lan-erreforma bat aplikatuz. Eta larriena da doikuntza eta murrizketa horiek ez direla egoera konpontzen ari, baizik eta, alderantziz, egoera okertu baino ez dutela egin. Langileek eragin ez duten

Luis Almansa indica que el grupo socialista respeta el derecho a la huelga pero no cree que la solución es convocar una huelga general cada seis meses como hacen las centrales nacionalistas que se niegan a participar en los foros de participación existentes en la Comunidad Autónoma y generan división sindical. No le parece lógico que se plantee una huelga ahora exclusivamente en Euskadi cuando existe un gobierno socialista que mientras se mantenga hay la garantía de que no se van a practivar recortes ni en Sanidad ni en Educación ni en Servicios Sociales. Reconoce que el gobierno del PP está aprobando el mayor recorte de derechos conocido en los últimos tiempos aplicando una reforma laboral que favorece únicamente a los empresarios y lo que es más grave es que todas estas medidas de ajustes y recortes no están resolviendo nada sino que está empeorando la situación. Opina que existe un camino distinto para salir de

krisi-egoera horretatik irteteko badela bide bat uste du eta, horregatik, erantzun bateratua eta unitarioa eman behar zaiola eta ez sindikatuen arteko zatiketarik planteatu. Amaitzen du beste askotan egiten duten gisan adieraziz, erakunde publikoek ez dutela grebak babesteko deialdirik egin behar; dena den, horrek ez du esan nahi talde politikoek planteatu diren neurrien aurkako kritikarik adierazi ezin dutenik edota, grebari beren babesa eman ezin diezaieketenik.

la crisis que no ha sido provocada por los trabajadores y por ello hay que buscar una respuesta conjunta y unitaria y no plantear divisiones sindicales. Finaliza indicando, como han manifestado en otras ocasiones, que las instituciones públicas no deben de hacer llamamientos a secundar huelgas sin que ello implique que los grupos políticos puedan manifestar su crítica a las medidas que se han planteado o incluso plantear su apoyo a la huelga.

Javier Ruiz jaunak, alderdi popularraren izenean adierazten du mozioak debate errepikaria planteatzen duela eta talde popularrak bere jarrera adierazi zuela martxoaren 29ko grebaren harian. Talde popularrak grebarako eskubidea errespetatzen duela adierazten du behin eta berriz, baina, era berean, lanera joan nahi dutenen eskubidea ere errespetatzen duela eta greba hartan eskubide hori ez zela errespetatu dio, lan egin nahi zutenak greba egitera behartu baitziren eta ostalaritzako establezimenduak, dendak eta abarrek ere hertsapena jaso zutela. Bilduri eskatzen dio greba-deialdia egiten dutenei lan egiteko eskubidea errespetatzeko eta greba gailendu dadin ez daitezela bortxaz baliatu eska diezaiela; eta egiten ez badu, greba inposatzeko bortxaren erabilera onartzen duela esan nahiko duela. Estatuko gobernuak hartutako neurriak gogorrak direla aitortzen du, baina, era berean, Europari begira beharrezkoak direla sozialistek gobernatu duten lau urte horietan galdutako kreditua eta konfiantza berreskuratzeko eta etorkizunari begira ekonomia iraunkorra sortu ahal izateko.

Javier Ruiz, en nombre del grupo popular, manifiesta que la moción plantea un debate recurrente y que la posición del grupo popular ya se indicó con motivo de la huelga del 29 de marzo. Insiste en que el grupo popular respeta el derecho a la huelga pero también en el respeto al derecho de los que quieren acudir al trabajo y que en aquella fecha ese derecho no fue respetado ya que se produjeron coacciones a la gente que quiso trabajar y también a establecimientos hosteleros, comercios etc. Pide a Bildu que pida a los convocantes de la huelga que respeten el derecho al trabajo y no empleen medios coactivos para imponer la huelga y que si no lo pide supondrá que admiten la coacción para imponer la huelga. Reconoce que las medidas adoptadas por el gobierno del Estado son difíciles pero a la vez necesarias cara a Europa para recuperar el crédito y la confianza perdida en los cuatro años de gobierno socialista, como para poder crear una economía sostenible a futuro.

Koldo Iturbe jaunak adierazten du PNV

Koldo Iturbe manifiesta que el PNV no

ez dagoela ados Madrilgo gobernua egiten ari den murrizketekin, izan ere, murrizketetan soilik oinarritutako politikarekin ekonomia ez da suspertuko. Dena den, ez du uste grebarako deialdia erantzun egokia denik eta lanerako eskubidea eta gutxiengo zerbitzuak errespetatzea eskatzen du. Amaitzen du adieraziz, bere taldearen iritziz erakundeak ez daudela grebak deitzeko, baizik eta, lan egiteko eta lehiakortasuna eta enplegua gehitzeko daudela; ondorioz, proposamenaren aurka bozkatuko dute.

está de acuerdo con los recortes que está practicando el gobierno de Madrid ya que con una política exclusiva de recortes no se va a recuperar la economía pero no cree que la convocatoria a la huelga sea la respuesta adecuada y reclama el respeto al derecho de trabajar y el respeto a los servicios mínimos. Finaliza indicando que en opinión de su grupo las instituciones no están para convocar huelgas sino para trabajar, para aumentar la competitividad y el empleo por lo que votarán en contra de la propuesta.

Maitane Nerekan andreak adierazten du azken hilabeteetan egoera okertu egin dela eta horrek Bilduren deialdia justifikatzen duela eta Bilduk egiten duena grebarako deia egin duten erakundeen proposamenak hona ekartzea dela. Ez du uste lan egiteko eskubideari dagokionez ezer eskatu beharra duenik, mundu guztiak errespetuz jokatuko duela uste baitu; eta PPri eskatzen dio Konstituzioan itsu-itsu sinisten duenez bertan arrezagutzen den lanerako eskubidea bermatu dezala.

Maitane Nerekan indica que la situación en los últimos meses ha empeorado lo que justifica la convocatoria y Bildu lo que hace es trasladar las propuestas de las organizaciones convocantes. No cree que tenga que pedir nada en relación al derecho de trabajar porque supone que todo el mundo actuará con respeto y pide también al PP, que tanto cree en la Constitución, que garantice el derecho al trabajo que en ella se reconoce.

Javier Ruiz jaunak adierazten du talde popularrak greba-eskubidea errespetatzen duela baina ez duela entzuten Bilduk lan egiteko eskubidea eskatzen duenik eta, jakina dela greba orokor guztietan hertsapena erabiltzen dela. Talde sozialista elektoralismoa egiten ari dela uste du eta garrantzitsua dela nazioarteko komunitateak hartzen ari diren neurriei babesa ematen diela eta neurri horiek etorkizun hurbil batean ondorio positiboak sortuko dituztela jakitea. Talde sozialistari gaur egungo egoeran zer-nolako erantzukizuna duen zehazteko esaten dio eta gogorarazten dio herritarrek

Javier Ruiz indica que el grupo popular respeta el derecho a la huelga pero no escucha que Bildu reclame el derecho a trabajar y que de hecho en todas las huelgas generales se coacciona. Opina que el grupo socialista está haciendo electoralismo y que es importante conocer que la comunidad internacional está apoyando las medidas que se están adoptando y que éstas generarán efectos positivos en un futuro cercano. Pregunta al grupo socialista que defina qué grado de responsabilidad tienen en la actual situación y le recuerda que la ciudadanía sabe que los socialistas no

badakitela sozialistek herria ez dutela krisi-egoeratik aterako. Eta horregatik, hain zuzen, ez dutela haien hauteskunde-espektatibetan sinesten.

van a sacar al país de la crisis y que por eso no crecen sus espectativas electorales.

Luis Almansa jaunak talde popularrari galdetzen dio jasotako jaraunspenari tenkadaka noiz arte jarraitu behar duten. PP-k defizitaz soilik hitz egiten duela adierazten du, baina ez dutela benetako arazoaz hitz egiten, alegia, diru-sarrerak gutxitu izanaren gaiaz, diru-sarreren gaia jorratzeak fiskalitateaz hitz egitea eragingo baituke. Talde popularra egungo egoeran oso eroso dagoela deritzo, herritarren aurka murrizketen politika aplika baitezake, nahiz eta horrek gizartearen babesa galtzea eragin.

Luis Almansa pregunta al grupo popular hasta cuando van a estar tirando de la herencia recibida. Manifiesta que el PP sólo habla del déficit pero no habla del verdadero problema que es la caída de los ingresos ya que abordar el tema de los ingresos supondría hablar de fiscalidad. Opina que el grupo popular está cómodo en la situación actual ya que le permite aplicar su política de recortes contra las clases populares pero que esto le ha llevado a perder el apoyo social.

Javier Ruiz jaunak adierazten du talde sozialistak amnesia kolektiboa egikaritzea nahi duela eta gaur egungo egoeran duen erantzukizun-maila aitortzea saihesten ari dela. Debate fiskala arrunta dela uste du, sozialistek ez baitute diru-bilketari buruzko inolako daturik ematen ez proposamenik zehazten. Gobernu sozialistaren bi etapek bakoitzak %25eko langabezia utzi duela gogorarazten du. Hauteskunde-babesean 8 puntu galdu dituztela aitortzen du baina talde sozialistak, oposizioko talde nagusia izanik, azken hauteskundeaz geroztik ez du Hauteskunde-babesa gehitu.

Javier Ruiz manifiesta que el grupo socialista quiere que se haga un ejercicio de amnesia colectiva y esquiva reconocer el grado de responsabilidad que tienen en la actual situación. Cree que el debate fiscal es populachero ya que en ningún momento los socialistas aportan ningún dato de recaudación ni concretan sus propuestas. Recuerda que las dos etapas de gobiernos socialistas han dejado un 25% de paro cada una. Finaliza reconociendo que han perdido 8 puntos de apoyo electoral pero que el grupo socialista, siendo el principal grupo de la oposición, no ha incrementado desde las últimas elecciones su apoyo.

Mozioa bozkatu egiten da eta ez da onartzen, Bilduren aldeko 4 boto eta PNV, PP, PSE-EE taldeen aurkako 21 boto lortu baititu.

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 4 votos a favor, Bildu y 21 votos en contra, PNV, PP, PSE-EE.

**114.- PSE ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: ADINEKOEN UDAL**

**114.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA S/LA CREACIÓN DEL CONSEJO**

**KONTSEILUA SORTZEA.**

Luis Almansa jaunak mozioa irakurtzen du.

Elena Coria andreak esku-hartzen du gobernu-taldea ez dagoela mozioaren edukiaren aurka adierazteko, baina abstenitu egingo dela esaten du, Gizarte Zerbitzuen arloan adineko pertsonen parte-hartzea Boluntarioen Elkarteen Federazioaren bitartez aitortzen delako eta, Getxon, jardunean dagoen eta parte-hartzailea den taldea delako. Horretaz gain, mozioak kontseilu hori eratzeko finkatzen dituen epeak ez zaizkio arrazoizkoak iruditzen, gai hori egun ez baita lehentasunezkoa.

Marisa Arrue andreak adierazten du talde popularrak begi onez ikusten duela mozioa, adineko pertsonan parte-hartzea bultzatzen baitu eta hori talde popularrak bere hauteskunde-programan jasotzen duen alderdietako bat da. Alderdi sozialistari eskatzen dio gobernatzen duten tokietan, Barakaldon, esaterako, han planteatzen diren proposamenak onartzeko eta horrelako kontseilu sektorialen sorrera bultzatzeko.

Maitane Nerekan andreak adierazten du Bildu taldeak mozioa babestu egingo duela, parte hartzeko beste modu batzuetara atzera daitekeen talde baten parte-hartzea gehitzea eragingo bailuke. Beraz, berariazko foro baten sorrera egokia iruditzen zaie.

Luis Almansa jaunak Bildu-ren eta talde popularraren babesa eskertzen du eta, baita, gobernu-taldearen abstentzio kritikoa ere. Mozioaren xedea adineko pertsonen hiritarren partaidetza zabaltzea dela azpimarratzen du eta,

**SECTORIAL MUNICIPAL DE PERSONAS MAYORES.**

Luis Almansa da lectura a la moción.

Elena Coria interviene para manifestar que el equipo de gobierno no está en contra del contenido de la moción pero se va a abstener porque en el Área de los Servicios Sociales se reconoce la participación de las personas mayores a través de la Federación de Asociaciones de Voluntariado, en la que están integradas las asociaciones de personas mayores, colectivo que en Getxo es activo y participativo. Además indica que los plazos que establece la moción para su constitución no le parecen razonables por no tratarse esa cuestión de una prioridad actualmente.

Marisa Arrúe manifiesta que el grupo popular ve bien la moción ya que apoya la participación de las personas mayores y ésta es una cuestión que el grupo popular la tiene recogida en su programa electoral. Pide también al grupo socialista que allí donde gobiernan, como en Barakaldo, admitan las propuestas que aquí plantean y favorezcan la creación de este tipo de consejos sectoriales.

Maitane Nerekan indica que Bildu apoyará la moción ya que supone incrementar la participación en un colectivo que puede retraerse a otras formas de participación, por lo que ven positivo la creación de un foro específico.

Luis Almansa agradece los apoyos recibidos de Bildu y el grupo popular así como la abstención crítica del equipo de gobierno. Insiste en que el objeto de la moción es ampliar la actual participación ciudadana de las personas

baita, Osoko Bilkurak kontseilu sektorialaren sorrerarekin bere eskumenak egikaritzea ere.

mayores y también supone el que el pleno ejerza sus competencias con la creación del consejo sectorial.

Mozioa bozkatzen da eta honako emaitza hau lortzen du: PP, Bildu eta PSE-EE taldeen aldeko 15 boto eta 10 abstentzio.

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 15 votos a favor, PP, Bildu, PSE-EE y 10 abstenciones.

Horrenbestez, mozio hau onetsi da.

En consecuencia es aprobada la siguiente moción:

Gaurko mundua azkar baino azkarrago ibili dabil, ezin uka. Zientzian eta teknikan zein medikuntzan eta industrian makina bat aurrerakuntza ageri dira, guztiontzat pizgarria behar lukete, bizi-itxaropenari handiro hazi eragiten diote; izan ere, bizi-itxaropena jaio ezkeroztik handitua da eta horrexegatik gizakien zahartzea geroago eta handiago da.

Es un hecho que el mundo de hoy se desarrolla vertiginosamente. Se presentan avances en la ciencia y la técnica, la medicina y la industria y esto es un aliciente para todos ya que aumenta considerablemente las expectativas de vida; de hecho, la esperanza de vida al nacer ha aumentado y por consiguiente cada día aumenta el envejecimiento poblacional.

Hala ere, teknikako aurrerapenak ez dira betiere gizarteko edo eta laguntasuneko hobekuntzekin batean etortzen, ez dira toki guztietan berdin-berdinak, garatzerakoan aurrerakuntzek ohi dituzten moduak ez dira neurri batekoak, ezberdinak dira; hor behar du bada herri-administrazioak, neurrigabetasun hori ondu eta zuzendu beharrez.

Pero no siempre estos avances técnicos vienen acompañados de mejoras sociales y/o asistenciales por igual en todos los sitios ya que se experimentan desarrollos muy desacompasados que desde la administración pública debemos paliar y corregir.

Fenomeno horren berezitasunak gogotan edukirik, adinekoak gizarteko kide garrantzizko dira eta gizartean bertan beren izankizunaren eta eginkizunaren eragile behar dute izan. Haien ezagutzak eta esperientzia baliotsu dira, kontuan hartzekoak eta behar-beharrezkoak gure erkidegoaren beraren geroa xedatzerakoan.

Dadas las dimensiones de este fenómeno, las personas mayores constituyen una parte importante de la sociedad y por tanto deben ser protagonistas de su ser y quehacer social. Sus conocimientos y su experiencia son un valor nada desdeñable y muy necesario para la definición del futuro de nuestra comunidad.

Bestalde, arauetan eta legeetan agitu diren aldaketak askotza dira bai estatuan eta bai Euskadin; batetik, bizi-

Así mismo, son muchos los cambios normativos y legislativos que se vienen produciendo tanto en el Estado como

baldintzak garatu eta hobetu egin dira eta bestetik, legeetako eta prozeduretako aldaketak eskubide berriak berma ditezen lagungarrizkoak izan dira. Horrek guztiorrek gogoeta eragin behar digu, udal zerbitzuak nola moldatzen eta eraentzen ditugun daukagun era eta modua azkertu eta berrikusi eragin behar digu. Etengabe.

en Euskadi; al desarrollo y mejora en las condiciones de vida, debemos añadir los cambios legales y procedimentales orientados a la consolidación de nuevos derechos, que obligan a una reflexión y a una revisión permanentes de nuestra forma de entender y administrar los servicios municipales.

Gizarte zerbitzuen legea, mendekotasunaren legea eta beste; horiek guztiok errealitatera erreparatu eragin behar digute, adinekoek beren hitza eduki dezaten bide eman, beren izatea garatzen egile eta eragile izan ditezen, baita udalarekin zerikusia daukatenetan erabakiak gizarteko talde gisa hartu ditzaten ere.

Ley de Servicios Sociales, Ley de Dependencia, etc. todo ello nos obliga a tomar conciencia de esta realidad y a posibilitar que las personas mayores tengan voz propia y un mayor protagonismo en la gestión de su realidad y en la toma de decisiones colectivas a nivel municipal.

Horregatik bada, beste udal askotan egin izan den bezala, garrantzi-garrantzizko deritzagu Adinekoen Udal Kontseilua eratzeari, pertsona horienganako arreta eta laguntza guztiro hobe ditezen eta haien ongizatea sustatu dadin.

Por eso, y al igual que ocurre en muchos otros municipios, consideramos que es muy importante la constitución del Consejo Municipal de Personas Mayores en orden a mejorar la atención integral de las personas de este colectivo y promocionar su bienestar.

Hala nola Bizkaiko Adinekoen Kontseilua, Adinekoen Udal Kontseilu horrek funtsezko helburu gisa adinekoen elkarteak lankide eta partaide gisa instituzionalizatzea luke, baita beste horrelako taldeena ere, diren haiek berak edo gure herriko gizataldе horrekin zerikusia edo konpromisoa dutenak; kontseiluaren zereginak ere balirateke, adinekoei lagundu, gizarteratu eta bizi-kalitatea hobetu beharrean burutzen diren jokabideak xedatu, ezarri eta ikuskatzea,

Al igual que el Consejo de Personas Mayores de Bizkaia, éste Consejo Municipal de Personas Mayores tendría como objetivo fundamental la institucionalización de la colaboración y participación del movimiento asociativo de las personas mayores y de otros colectivos de afectados o implicados con este colectivo en nuestra localidad, en la definición, aplicación y seguimiento de las políticas de atención, inserción social y mejora de la calidad de vida dirigidas a este sector de la población.

Kontseilua udal foroa litzateke, berariazkoa, partaidetzako tokia, 65 urtetik gorako adinekoentzat eta

Sería un foro municipal específico de participación de las personas mayores de 65 años y de las entidades,

adinekoekin zerikusia daukaten erakundeentzat, elkarteentzat eta antolakundeentzat. Udalbatzarreko talde politikoak ere baleudeke bertan, jokabideen eta ekintzen plangintza egin, burutu eta gainbegiratzeko asmoz, haiekin batean lanean dihardutela, gure herriko gizatalde horren onerako.

asociaciones y organizaciones relacionadas con las personas mayores, y los grupos políticos que forman la Corporación Municipal, para la colaboración en la planificación, ejecución y seguimiento de las políticas y actuaciones destinadas a lograr el bienestar de este sector de la ciudadanía en nuestro pueblo.

Hainbat gairi ukitzerakoan, esateko moduan irisgarritasuna, eraikuntza-oztopoak edekitzea, kaleak oinezkoen bide bihurtzea, kale-garbiketa, aisiako eta kulturako eta hezkuntzako jarduerak, gizarte-laguntzetarako aholku ematea, mendekotasunaren legea aplikatzeko izapidegintzarako aholkularitza, zaharsariak, eta abar, gai hauetarako guztiotarako adinekoen iritzia aintzat hartu beharra dago, gure udalerria gizarteratuago, gizarteratzaileago, zabalago, gizatiarrago eta gizartekoiago bihurtzea nahi badugu.

Temas como la accesibilidad, la eliminación de barreras arquitectónicas, la peatonalización de calles, la limpieza viaria, las actividades de ocio, culturales, educativas, el asesoramiento en relación con las Ayudas Sociales, asesoramiento en la tramitación de los aplicativos de la Ley de Dependencia, pensiones, etc. deben tener en cuenta la opinión de las personas mayores para que realmente vayamos hacia un municipio más integrado e integrador, más abierto y humano y más solidario.

Gero eta gero, zerbait nabarmendu beharrez, horrelako gizarte-arloko kontseilua eratzeko eskumena bere-berea duena Udalbatzarraren osoko bilkura da eta aplikatzeko diren lege-araudien xedea, aldiz, herritarrei eta haien elkarteei bideak jartzea, udal arazoetan parte hartu ahal dezaten.

Hay que resaltar que la competencia para el establecimiento de los Consejos Sectoriales es una competencia exclusiva del Pleno y cuya finalidad en normativa legal de aplicación es la de canalizar la participación de los ciudadanos y de sus asociaciones en los asuntos municipales.

Hargatik guztiagatik, PSE alderdiko udal taldeak Udalbatzarrari proposatzen dio osoko bilkuran har dezan hurrenengo ERABAKIA :

Por todo ello, el Grupo Municipal Socialista presenta al Ayuntamiento Pleno la siguiente propuesta de,
ACUERDO

1. Udalbatzarrak osoko bilkuran "Getxoko Adinekoen Udal Kontseilua" sortzea erabaki du.

1. El Ayuntamiento Pleno acuerda la creación del "Consejo Sectorial de las Persona Mayores de Getxo".

2. Hargatik bada, Alkateari eskatzen dio sei hilabeteko epean gehiena behar beste azterketa eta galde eragin ditzan,

2. En consecuencia, se insta al Sr. Alcalde a que promueva en un plazo máximo de seis meses, los estudios y

gure eremuko erakundeak eta elkarteak lagun hartuta, arloko kontseilua osatzeko eta jarduteko araudia paratu eta proposatzearren.

consultas institucionales y asociativas de nuestro ámbito que estime necesarios en orden a la elaboración de una propuesta de Reglamento de Composición y Funcionamiento de dicho Consejo Sectorial.

**115.- PSE ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: HERRITARREN ARARTEKOA SORTZEA.**

**115.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA S/LA CREACIÓN DEL DEFENSOR/A DEL VECINO/A.**

Luis Almansa jaunak ondorengo mozioa irakurri du:

Luis Almansa da lectura a la siguiente moción:

Nazio Batuen Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 50. urteurrena dela eta, 1998ko urriaren 17an, Europako 41 hiritako ordezkariak Bartzelonan elkartu ziren "Bartzelonako Konpromisoa" izeneko Giza Eskubideekiko Hirien Konpromisoa izenpetzeko.

Con ocasión del 50 aniversario de la Declaración Universal de Derechos Humanos de las Naciones Unidas, representantes de 41 ciudades europeas se reunieron en Barcelona, para firmar, el 17 de Octubre de 1998, un Compromiso de las Ciudades por los Derechos Humanos, el llamado "Compromiso de Barcelona".

Adierazpen horren bosgarren puntuan horrelaxe dio: "*Europako hiri handi, ertain eta txiki guztietan giza eskubideak babesteko eta zaintzeko mekanismoak eraikitzeko beharra dago, udal eskumenak diren gaietan hiritarrei euren eskubideen defentsan eta babesean laguntzeko zeregina daukaten tokiko boterearen erakunde objektibo eta independenteen bitartez*".

El punto quinto de esa Declaración recoge,.. "*la necesidad de construir mecanismos de protección y vigilancia de los derechos humanos en todas las ciudades europeas grandes, medianas y pequeñas, mediante instituciones objetivas e independientes del poder local, encargadas de defender y apoyar a los ciudadanos en sus derechos en materia de competencia municipal.* "

Udal Gobernuen erakunde objektibo eta independente horiek gure bizilagunen eskubideak hobeto defendatzen laguntzen digute eta, ondorioz, haien bizitza-kalitatea hobetzen.

Estas instituciones objetivas e independientes del Gobierno Municipal ayudan a defender mejor los derechos de nuestros vecinos y vecinas y por consiguiente a mejorar su calidad de vida.

Horregatik, oso interesgarria da Getxoko Udalak, benetan herritarren partaidetzaren bidetik eta

Por ello es altamente interesante que el Ayuntamiento de Getxo, si de verdad quiere seguir caminando por la senda

herritarrengandik hurbilago dauden Gobernu eta Udal Administrazioa lortzeko bidetik jarraitu nahi badu, Herritarraren Defendatzailearen figura sortzea.

de la participación ciudadana y de lograr un Gobierno y una Administración Municipal más próxima a la ciudadanía, cree la figura del Defensor/a del Vecino/a.

Herritarraren Defendatzailea pertsona bakarrak osatutako udal organoa da eta Udalak antolatzeko daukan autonomiaren bitartez eratu daiteke; Udalaren osoko bilkurari dagokio bere eraketa eta funtzionatzeko arauak zehaztea.

El Defensor/a del Vecino/a es un órgano unipersonal municipal que se puede crear en ejercicio de la autonomía organizativa del Ayuntamiento, cuya constitución y normas de funcionamiento corresponden determinar al Pleno del Ayuntamiento.

Proposatzen dugun Herritarraren Defendatzailearen figurak, orokorrean, administrazioen eta, zehazki, Getxoko Udalaren jarduketen aurrean babesik gabe aurkitzen diren pertsona guztien kexak artatzeko betekizuna izango du.

La creación de la figura del Defensor/a del Vecino/a que proponemos, tiene la función de atender las quejas de todas las personas que se encuentran desprotegidas ante la actuación, o falta de actuación, de las administraciones en general y de nuestro Ayuntamiento en particular. Por tanto, actúa como supervisor y colaborador del Ayuntamiento de Getxo, con el objetivo de ayudar a mejorar su funcionamiento.

Administrazioekin lan egiteaz gain, Herritarraren Defendatzaileak herritarren eta interes publikoko zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresa pribatuen arteko harremanak ikuskatzen ditu (argindar, telefono, ur, gas, posta eta abarrekin lotutako enpresak).

Además de trabajar con las administraciones, el Defensor/a del vecino/a, empieza a actuar también en la supervisión de las relaciones entre la ciudadanía y las empresas privadas que prestan servicios de interés público, como la luz, la telefonía, el agua, el gas, correos, etc.

Horregatik guztiagatik, Sozialisten Talde Politikoak honako Akordio proposamena aurkeztu dio Udalaren osoko bilkurari

Por todo ello, el Grupo Municipal Socialista presenta al Ayuntamiento Pleno la siguiente propuesta de,

AKORDIOA

ACUERDO

1. Udalbatzarrak Getxoko Udaleko Herritarraren Defendatzailea sortzea erabaki du.

1. El Ayuntamiento Pleno acuerda la creación del Defensor/a del Vecino/a del Ayuntamiento de Getxo.

2.Ondorioz, Herritarraren

2. En consecuencia se crea la Comisión

Defendatzailearen Batzorde Informatibo Berezia eratu da.

3. Zera eskatzen zaio Alkate Jaunari: Udaleko Talde Politikoei ordezkariak proposa ditzatela eskatzeko idazki bana bidal diezaiela eta behin udalbatzarrak onartu ondoren, dagokion Estatutuaren artikuluak Udaleko Talde Politiko ezberdinen artean adosteko helburuarekin lanean has daitezen.

4. Lehendakaritza eta Gizarte Zerbitzuen Batzorde Informatzailearen hurren bilerako gai-zerrendan sartuko da honako Akordioa.

Keltse Eiguren andreak adierazten du egun bizi dugun egoera ekonomikoa dela eta, ez direla egitura berriak sortzearen aldekoak aurretik lehendik daudenak aztertu gabe eta Euskal Autonomia Erkidegoan Arartekoaren figura jada badagoela ikusten dute, zeinak, Getxoko Udalean ere jarduten duen. Bizilagunek beren kexak eta iradokizunak nola bideratu badutela deritze egun ditugun udal-egiturekin; eta talde sozialistari gogorarazten dio Enpleguaren Planean sartzen den langileen zerrendaren hedadura onartu zuela eta hedadura horretan ez dagoela proposaturiko ezer jasota.

Eduardo Andrade jaunak adierazten du mozioak zerbitzu publikoen hornidura-enpresei dagokienez, egun Kontsumitzailearen Udal Bulegoari nahiz Getxon, Bizkaiko lurraldean eta Autonomia Erkidegoan dauden beste bulego eta egitura batzuei kontsumo-alorrean esleituta dituzten eskuduntza batzuk bizilagunen defendatzaileari ematea planteatzen duela; beraz,

lnformativa Especial del Defensor/a del Vecino/a.

3. Se insta al Sr. Alcalde a que con carácter inmediato dirija un escrito a los respectivos Grupos Políticos Municipales para que éstos eleven propuestas de representantes, que una vez ratificados por el Pleno, puedan iniciar sus trabajos al objeto de consensuar entre los diversos Grupos Políticos Municipales el articulado del correspondiente Estatuto.

4. Dicho Acuerdo, se incluirá para su dictamen en el próximo Orden del Día de la Comisión lnformativa de Presidencia y Servicios sociales.

Keltse Eiguren indica que ante la situación económica actual no son favorables a crear nuevas estructuras sin primero analizar las existentes y ven que en la Comunidad Autónoma del País Vasco ya existe la figura del Ararteko que también actúa frente al Ayuntamiento de Getxo. Opina que los vecinos tienen cauces para canalizar sus quejas y sugerencias con las estructuras municipales actuales y recuerda al grupo socialista que aprobó el dimensionamiento de la plantilla de personal incluida en el Plan de Empleo y que en dicho dimensionamiento nada de lo que se propone está recogido.

Eduardo Andrade indica que la moción plantea asignar al defensor del vecino/a unas competencias en relación a empresas suministradoras de servicios públicos que las tienen también asignadas la propia Oficina Municipal del Consumidor, a parte de otra serie de oficinas y estructuras existentes en el ámbito del consumo en Getxo, en el territorio de Bizkaia y en la

zentzurik ez duen bikoiztasunari bide emango litzaiokeela iruditzen zaio. Administrazio publikoekiko harremanari dagokionez, estatu-mailan Herriaren Defendatzailea eta, maila autonomikoan, Arartekoa daudela gogorarazten du. Nahikoa egitura iruditzen zaio eta, hain zuzen, zenbait udalerri, esaterako, Gasteiz, bizilagunen defendatzailearen figura edukirik figura horren iraupena birplanteatzen ari da. Gainera, figura hori ezarriko balitz, eraginkorra izateko egitura garrantzitsu bati lotuta joatea eskatuko luke eta horrek 150.000 euroko gastua eragingo luke, gizarte-arretatara bidera daitezkeenak. Elkarteak eta zinegotziak beraiek biztanleen interesak eta kexak defendatzen dituzten egituratzat erreklamatuz amaitzen du.

Comunidad Autónoma, por lo que opina que existe una duplicidad que no tiene sentido. Respecto a la relación con las administraciones públicas recuerda que existe un Defensor del Pueblo a nivel estatal y el Ararteko a nivel autonómico, lo que le parece una estructura suficiente y que, de hecho, municipios como Vitoria que tienen un defensor del vecino/a se está replanteando su pervivencia. Además, en el supuesto de implantar esta figura, para ser efectiva tendría que ir acompañada de una estructura importante que supondría un gasto del orden de 150.000 euros, cantidad que puede destinarse a atenciones sociales. Finaliza reclamando como estructuras que defienden los intereses y quejas de los vecinos a las asociaciones y a los propios concejales.

Luis Almansa jaunak erantzuten dio bizilagunen defendatzaileak ez duela Arartekoak duen egiturarik eskatzen eta ez duela zertan gehiegizko gastua eragin behar, bitarteko asko egungo udal-egituratik lortuko bailirateke eta ez da planteatzen jarduerak beste zenbait zerbitzurekin bikoiztasunean egikaritu beharra; izan ere, Getxoko Udalaren eta beste administrazio batzuen aurreko kexetan oinarrituko bailitzateke. Mozioaren xedea eraginkorragoa eta bizilagunarentzako hurbilagokoa izango den figura bat planteatzea da, non, kexak fisikoki planteatu ahal izango diren.

Luis Almansa replica que un defensor del vecino/a no necesita una estructura como la del Ararteko y no tiene porque generar un gasto excesivo ya que muchos medios se obtendrían de la actual estructura municipal y no se plantea que ejerza actividades en duplicidad con otros servicios ya que se centraría en las quejas frente al Ayuntamiento de Getxo y otras administraciones. El objeto de la moción es plantear una figura más eficaz y cercana al vecino donde se puedan plantear físicamente las quejas.

Maitane Nerekan andreak adierazten du Bildu-k mozioaren aurka bozkatuko duela beste talde batzuk aipatu duten beste erakunde batzuen funtzioekiko bikoiztasun-arrazoiengatik. Gainera, bizilagunen eta Udalaren artean bitartekariak sortzea ez dela beharrezkoa uste du; horretarako

Maitane Nerekan indica que Bildu votará en contra por las razones que se han indicado por otros grupos de duplicidad de funciones con otras instituciones. Cree además que no es necesario crear intermediarios entre los vecinos y el ayuntamiento ya que para ello están los concejales y los propios

daudela zinegotziak eta bizilagunak, beren eskubideen egikaritzan parte-hartze zuzena dutenak.

vecinos con su participación directa en el ejercicio de sus derechos.

Eduardo Andrade jaunak behin eta berriz adierazten du bizilagunaren defendatzailearen bulegoak azpiegitura garrantzitsua beharko lukeela eta, gainera, ez duela ezertarako balioko figura hori Udaleko Araudi Organikoan barneratzen ez bada. Kexen eta Iradokizunen Batzorde Bereziaren sorreran lan egitea egokiagoa iruditzen zaio, hiri handietako udalek aurreikusita duten gisan.

Eduardo Andrade insiste en que una oficina del defensor del vecino/a necesitaría de una infraestructura importante y además de nada sirve si no se acomoda este figura en el Reglamento Orgánico Municipal. Cree que es mejor trabajar en la creación de una Comisión Especial de Quejas y Sugerencias, tal como tienen previsto los ayuntamientos de grandes ciudades.

Luis Almansa jaunak administrazio-egitura berririk ez dela behar baieztatzen du, baizik eta bizilagunen kexak jasoko eta kudeatuko dituen figura bat sortzea dela xedea; ez du ulertzen proposamenarekiko aurkakotasun hori.

Luis Almansa se ratifica en que no es necesario una estructura administrativa nueva sino crear una figura que reciba las quejas de los vecinos, las gestione y no entiende la oposición a esta propuesta.

Alkateak esku-hartzen du PNV-ren izenean talde popularrari eta gainerako taldeei koherentzia handiagoa eskatzeko. Talde sozialistari gogorarazten dio Eusko Jaurlaritza erakunde desberdinak bateratzen ari dela baliabideak optimizatu ahal izateko eta, aldiz, Getxon, kasu askotan lehen dauden zerbitzuak bikoizten dituzten zerbitzu berriak sortzea eskatzen dutela. Gogorarazten du Udalak Enpleguaren Planean udalaren zerbitzura dauden langileen hedadura zehaztu zuela eta lortutako akordioak errespetatu egin behar direla. Talde guztiei zerbitzu berrien sorrera dakarten proposamenak planteatu aurretik hausnartu egin behar direla esaten die, egun bizi dugun egoera ekonomikoa dela eta.

El alcalde interviene, en nombre del PNV, para solicitar del grupo socialista y de todos los grupos una mayor coherencia. Recuerda al grupo socialista que en el Gobierno Vasco han procedido a unificar diferentes instituciones con el argumento de optimizar los recursos y sin embargo en Getxo piden crear nuevos servicios que en muchos casos duplican a otros exsitentes. Recuerda que el Ayuntamiento en el Plan de Empleo definió la dimensión del personal al servicio del ayuntamiento y hay que respetar los acuerdos alcanzados y plantea a todos los grupos la necesidad de que reflexionar antes de plantear propuestas que generen la creación de nuevos servicios teniendo en cuenta la actual situación económica.

Mozioa bozkatzen da eta ez da

Sometida la moción a votación es

onartzen PSE-EE taldearen aldeko 2 boto eta PNV, PP eta Bildu taldeen aurkako 23 boto lortu baititu.

rechazada al obtener 2 votos a favor, PSE-EE y 23 votos en contra, PNV, PP y Bildu

**GALDE-ESKEAK**

Gai gehiagorik ez dagoenez, Lehendakari jaunak bilkura bukatutzat eman du egun honetako hogeiak direnean. Bertan gertatutakoa, nik, idazkari nagusiak, jaso eta egiaztatu dut akta honetan eta alkate jaunak eta biok sinatu dugu. Eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

**RUEGOS Y PREGUNTAS**

Y no habiendo otros asuntos de que tratar, el Sr. Presidente levantó la sesión siendo las veinte horas de este día, extendiéndose con su resultado la presente acta, firmando en unión mía el Sr. Alcalde, de todo lo cual yo, el Secretario, doy fe.